### BATZUK

Batzuk badira bizimodua
antolatzen dutenak oraindik bizi gabe,
beste batzuk, ordea, bizi dira
bizi diren egunean, ardura bakar batekin:
Ondo pasa, eta asko harrapa
dantzan egindakoa dantzan eginda dagoela.

Hautsarengandik gatoz
hauts izango gara
baina bien bitartean
ondo pasa.
Bizitza urtez betetzea
ez da urteak bizitzea
alde ederra dago.

Batzuk urteak pasa,
beste batzuk bizi eta ahal bada goza.
Batzuk ez dira konformatzen
beti gehiago nahi, besterik ez daukate.
Beste batzuk, ordea, gutxiz konpontzen dira
eta hobeto bizi dira, ajola gabe!!!

### EUTSI HIREAN

Ez da hain erraza
dirudienez bezala aurkitzea norbera
batez ere bilatzen hasterakoan
jarri aztertzen egoera
nondik zatozen, nora zoazen
argi daukazun edo oraindik ez
zerbait nahi duzun izan
edo berdin den batere ez
ez da batere erraza ez
horrenbeste jende artean norbait izatea
ez da ere beharrezkoa
hori bakoitzaren erabakia da
baina lehen bait lehen jakitea
hobe da

Ez da hain erraza…
  Ez da ere ezinezkoa…
    norbera aurkitzea.
      norbait izatea…
        Zerbait argi badaukazu eutsi hirean.

### KURRELA BATEN AITORMENA

Iganede gabe berriz
bihar goizean izorrai
ez daukat batere gogorik
beste baten onerako
produzitzen hasteko
ez dago eskubiderik
gauzak honela daude
onartzen dudalako
kontuan harturik
hau ez dela betirako
kontuan harturik
hau ez dela betirako!!!

Automatikoki ari naiz lanean
programaturik nago
nire aurreko hau
edo ni naiz makina?
hori zalantzan dago
erlojuari begira
denbora gelditu da
hau ez da inoiz bukatzen
eta ni behea jota
ez da inoiz bukatzen
eta ni behea jota!!!

Igande gaua
igande gaua berriz
ez daukat batere
ez daukat batere gogorik
gauzak honela daude
onartzen dudalako
kontuan harturik
hau ez dela betirako
kontuan harturik…

### OSABA SAM

Kaixo Osaba Sam, jakingo duzun bezala
bihurritzen ari da egoera nire herrialde honetan
iraultzaile eta gorri ugari sortzen omen dira
mamorroak bezala
horregatik zure interesak eta nireak
                    arriskuan daudelako
zure laguntzarekin kontatzen dut
arazo hau konpontzeko

Lasai lagun mandatari, egon lasai lasai
horrelako arazorik baldin baduzu
deitu Osaba Sam
lasai lagun, egon lasai lasai
Osaba Samek esandakoa egiten baduzu
arazorik ez duzu

Osaba Sam inoiz ez al duzu pentsatu
ez zarela jaungoiko bat
indarraren arrazoia ez dela arrazaoia
hire legeak zabaltzeko mundu guztian
historian zehar izan dira
uste zutenak izango zirela
munduko nagusi orduan eta beti

Ez da horrela
ez da horrela izan inoiz
hire jokaldiari bukaera
helduko zaio egunen baten denei bezala
ez da horrela
ez da horrela izango
ez behintzat mundua lehertzen
                    ez baduzu lehenago

Osaba Sam Panama. Salvador,
Cuba, Nikaragua, Palestina,
Zubiaram, mundu guztia… utzi pakean
Osaba Sam… Gelditu etxean!!!

### AMETSETAN

Gaur gauean lorik ezin egin
ezin egin uste dut behintzat
ez dakit zergatik baina beti berdin
rollo alu hau burutik kendu ezin nabil
burrukan izara eta almohadarekin
sorgin guztiak nire atzetik dabiltza
esnatzen ez banaiz akabo…

Ilunabarrak beldurra ematen dit
oraingoan zer izango den ez dakit
begiak amiltzen eta nahi ez utzi
egunsentia heldu arte

Gaur gauean lorik ezin egin
ezin egin uste dut behintzat
ez dakit zergatik baina beti berdin
esnatzen ez banaiz akabo…

Ametsetan…
    estu eta larri nabil.




### I HAVE NO MONEY

Duela mende asko
gizona erraz degeneratzen hasi
                    baino lehenago
arazo bakarra zen
goizean jaiki eta kezkatu jatekoa lortzeko
hotz egiten bazuen
txoko baten bila, suz biztu… besterik ez dago
ez zen orain bezala
denborarekin bihurtu gara materialistu hutsak

            I have no money

Gaur egun bizitzeko
gizarte honek markatzen digun
                    muga barruetan
paper pusketa batzuk
beharrezkoak izaten dira zoritxarrez sarritan
horrek sortzen duten arazoak
ez dira erraz konpontzekoak
batzuk oraindik aberasten
beste batzuk kalean kaka jaten

            I have no money… and you?
                    dirurik ez…

### IZEN GABEKO BATA ZURI BAT

Ez zaitut ezagutzen
ez dakit zaren pertsona edo zer
baina ezer ziur ezetz
hori ez, ezin liteke
bestela ni honela nola nago
ez naiz aurkitzen ez gaizki ez ondo
ni non sartuta nago
ez dakit ez hori, eta ez besterik.

Ez duzu inoiz utzi izaten
lasaitasuna nire nagusi
beti berdin azkenean ez dakit
nagoen ondo, nagoen gaizki
non nago ni
ez zaitut burutik kentzen
nire neuronak zaude jaten
bestela ere lehen
nahiko bazeuden
orain ezerrekin, ez naiz gogoratzen…

Nire neuronak zaude jaten
ez dakit zaren pertsona edo zer
izan gabeko bata zuri hori
niretzat nahi dut.

### GALDUTA NABIL

Galduta nabil
bakar bakarrik dakit
ez dakidala nun daukadan burua
ezin iriki ahoa
jakin nahiko nuke benetan
zer egiten dudan leku honetan
ezer ez dut ulertzen
eztarria erretzen…

Taberna baten sartu esaten gabon
eta barra barrutik erantzuna egunon

Egia da! Iadanik eguna
orain hasi zait egiten ezezaguna
kale honek, lehengo txakurra
kamarero hau eta bere taberna
urdurik nago, ez nuan uste
mozkortuko nintzela horrenbeste,
ez edukitzearren ez daukat ere
eskatu dutena ordaintzeko beste.

Nun ibili naiz, esan norbaitek
burutik kendu keska honek
etxera itzuli, beharko naiz oraingoan ere
ezer jakin gabe.
Galduta nabil…
berriz ere galduta nabil…
gelditzen zait bakarrik esatea
berriz ere azkena izango dela…

Galduta nabil…
berriz ere galduta nabil.

### EZER EZ DA GERTATZEN

Zer gertatzen ari da
denbora batetik hona
gauza arraroak ugari
eta inor ez kapaz argitzeko hori
eguraldia zoratzen
inon ez da lehen bezala
neguaren sasoian uda
eta ura behar dutenentzat beroa
basoak sikatzen
basamortuak zabaltzen
zer ari da gertatzen?

Animali mota pila bat desagertzen
eta hemen ez da ezer gertatzen
gizakia neurririk gabe multiplikatzen
eta naturan eskua sartzen eta sartzen, dena
izorratzen.

Aurrerapen izenean
denak balio du
ingurugiro guztiak… apurtu!!!
bi milagarren urtera hurbiltzen…
geruo eta urrunago ikusten…
zenbaki polita bait zen

Lurra poliki poliki tirabiratzen
eta hemen ez da ezer gertatzen
zerua, bai zerua, ere gaude zulatzen
bainan berdin da, ez da ezer gertatzen
dena gabiltza apurtzen.

Gizakiarentzat lekua egin beharko da
azkenean denak lurperatzeko ere izaten bac
dena gabiltz apurtzen, ez da ezer gertatzen.
dena apurtzen !!!
Hiru aeroplano

### HIRU AEROPLANO

Hiru aeroplano pasauta
bat itxasora jausi
ekarri, Angelitak ekarri
Angelitak ekarri
Angelitak fondua emanda utzi

Ondarrua ta Debatik atera da jendia
pasiatzera goazen Mutriku aldera
goazen Mutriku aldera
goazen Mutriku aldera
Han dauan aeroplanua ikustera

Juana Pipaxen etxian
egin dute afaria
Aingiria bete kasuelaria
bete kasuelaria
kalamax zorrotz ibili kutxaria

Potruak daukatela fritos
fritos daukatela potruak
entzuten
Delirium Tremens kantatzen
Delirium Tremens kantatzen
ahal duten guztiari
adarra jotzen.